

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehenik eta behin, **emakumezkoen indarkeriaren aurkako elkarte batekin** batu egingo gara produktua saltzeko, hain zuzen ere Basaurin dagoen batekin (*Marienea*). Elkarte horren emakumeak publizitatea egingo dute produktuari, hau da: Institutuetan edo jaietan egiten dituzten hitzaldietan emakumeak haien esperientziak kontatzeko. Jende gazteari zuzenduta egongo dira batez ere hitzaldiak hauek kontzientziatzeko eta horretaz baliatuz, gure produktua jendearen aurrean aurkezteko.

Segurtasun enpresa bat azpikontratatu dugu, gure bezeroei laguntza hoberenak emateko. Horretaz aparte gure eskumuturrekoak egiteko, Quilamaren aitonaren lokalean egingo ditugu eta *Lanbide eta Sepe*-ra joango gara langileak kontratatuzko. Erlojuak egiteko *Casiorekin* azpikontratazio bat egingo dugu.



Beste ideia bat teknologia enpresa batekin elkartzea izango da, gure produktua behar dituen teknologia programak garatzeko, adibidez: eskumuturreko barruan **Txip GPS-a**. Hau da, **txip GPS-ak** arazorik gabe lokalizazioa gure ordenagailuetara bidaltzeko.

Lehen esan dugun moduan, gure produktua iragazgaitza izango da, beraz, etorkizunean kostaldeko portuekin kontaktuan egotea gustatuko litzaiguke, itsasontzi bat prest izateko itsas zabalean zerbait gertatzekotan. Badakigu gaur egun hainbat enpresek uretan galdutako pertsonak bilatzera doazela, baina gure ustez askoz errezagoa izango litzateke norbait aurkitzea gure eskumuturrekoaren bidez. Horretarako ere

itsasontziak gidatzeko baimena duten pertsonak kontratatu behar izango ditugu itsasontzi batekin haien bila joan ahal izateko.